

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2734

96/2016 EBAZPENA, ekainaren 13koa, Uribe ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, lau urterako izendatzen da, aldi baterako, luzatzeko aukerarekin, Estepan Imanol Gainza Jaúregui jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: erradiodiagnostikoa.

Apirilaren 4ko 52/2016 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: erradiodiagnostikoa.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Estepan Imanol Gainza Jaúregui jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: erradiodiagnostikoa.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorritz, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Estepan Imanol Gainza Jaúregui jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: erradiodiagnostikoa.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2016ko ekainaren 13a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, luza-pena onartzen ez bada, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESiri jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Getxo, 2016ko ekainaren 13a.

Uribe ESIko zuzendari gerentea,
M.^a LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.